

ERRIOXAKO EUSKARA

Hiztegi txikia

Aitor Arana

Aurkibidea

Kokapen mapa...

Hitzaurrea...

Ikurrak eta laburdurak...

Errioxako euskara - Euskara batua hiztegia...

Euskara batua - Errioxako euskara hiztegia...

((((KOKAPEN MAPA))))

Marra gorriz, euskararen muga Errioxan IX.-X. mendeetan.

Marra urdinez, euskararen muga 1863an.

(Ikus azalean koloretako mapa)

Iturria: R. Menéndez Pidal, *Orígenes del español*, 1956 [4. arg.]

Hitzaurrea

1. Errioxa

Errioxa probintzia bakarreko autonomia erkidegoa da, iparrean Euskal Herria mugakide duena (Araba eta Nafarroa Garaia). Nekazaritza jarduera handiko eskualdea da (mahastiak, zerealak, frutak eta barazkiak). Abeltzaintzan ardi eta behi aziendak nagusitzen dira. Elikagai industria du eta ardo ekoizle ezaguna da. Monumentu ugari ditu, Ozkabarteko katedrala, besteak beste. Errioxa luzaro izan zen Nafarroako Erresumaren barnean, 1373 inguruan Gaztelari lotuta geratu zen arte. Erresumako bi hiriburuak Errioxako Naiara eta Nafarroako Iruñea izan ziren.

2. Errioxako euskara Berant Erdi Aroan eta gaur egun

Azken ehun urteotan eztabaida handiak izan dira euskaldunon artean, Errioxako euskara erromatarren etorrera baino lehenagotik bertan hitz egiten ote zen, ala Erdi Aroan gaur egungo Hego Euskal Herritik hara joandako euskaldunek eraman ote zuten. Gu ez gara eztabaida horretan sartuko, aski argigarria iruditzen zaigu Eduardo Aznar jaunaren iritzia (ikus Aznar hitzaurre honetako 5. puntuan). Nahikoa ziur dakigu, aldiz, euskara noiz arte hitz egin zen Errioxan, adituek irizpide berdintsua baitute horren inguruan. Aznarrek honela dio bere idazlanean, latinizazio garaiaz eta Erdi Aroaz (itzulpena gurea da):

[Diogun horretatik] atera beharreko ondorioa da [Errioxako eremu euskaldun horiek] euskaldun irautea lortu zutela latinizazio goiztiarrenaren ondoren, eta haietan euskarak pixka bat luzaroago iraun zuen beste leku batzuetan baino, noiz arte zehaztea zail samarra bada ere. Ebro ibaiaren iparrean [...] Nafarroako euskara denbora tarte zabalean galdu zen, VI. eta XII. mendeen artean. Ziurrenik, tarte horretan euskara [Errioxan] bizirik egongo zen lehenik latinarekiko bizikidetzan eta gero erromantze errioxarrarekin batera, zenbait garaitan Errioxa Garaiko eta [gaurko Hegoaldeko] euskaldunak hartzen zituela.

Eduardo Aznar, 2017, 154. or.

Hauxe da, alde handiz, Errioxa osoan euskal toponimia trinkoena daukan alderdia, eta Erdi Aroko agiritan leku izen horiek erakusten dituzten ezaugarri fonetiko eta morfologikoak ikusirik ondoriozta daiteke Oja Haranean, bai goialdean eta baita behealdean ere, euskarak hizkuntza mintzatu gisa iraungo zuela XV. mendearen amaiera arte. Euskarak hain luzaro iraun zuela baieztatzeko funtsezko arrazoi bat da ordura arte eskualde horretako pertsonen goitizen euskaldunak daudela, eta XVI. mendea heldu eta gero ez direla gehiago ageri.

Eduardo Aznar, 2017, 153. or.

Eduardo Aznarren iritzia bat dator Luis Mari Mujikak Burgosko euskarari buruz duenarekin (Ikus *Burgosko euskara* hiztegiko hitzaurrea).

Gaur egun, badira errioxar euskaldunak. Heldu euskaldunberriak ez dira gutxi. Ehunka edo milaka izan litezke: ez dugu aurkitu Errioxako gobernuak egindako euskaldun kopururik erakusten duen inkesta soziolinguistikorik. Guk batez ere Araba hegoaldeko ikastola eta ikastetxeetan hitz egin ahal izan dugu haiekin, euren ikasle garaian.

3. Errioxako euskararen ezaugarri batzuk

Errioxako «*Izioki dugu*» eta «*Guek aiutu ez dugu*» esaldi historikoak alde batera utzita, euskarazko lekukotasun idatzi gutxi geratu zaizkigu: toponimia, eta Erdi Aroko antroponimia pixka bat. Eta gaur arte heldu diren ahozko lekukotasun bakanak —hitz solteak— Errioxako gaztelanian gorderik heldu zaizkigu. Horrek, jakina, hitzak desitxuratu ahal izan ditu, lehenik euskaratik gaztelaniara igarotzean, eta gero gaztelanian bertan, mendeen joanean.

Jatorrizko hiztunik gabe eta testu idatzi luzerik gabe, ezinezkoa da euskara errioxarraren deskribapen sakona egitea, baina dauzkagun hondarrek zantzu batzuk erakusten dituzte. Arestian esan dugun bezala, Errioxa probintzia Euskal Herriaren hegoaldean dago eta, beraz, ez da harritzekoa bertako euskarak mendebaldeko eragina izatea. Dauden lekukotasun apurrak aztertuta, laster datorkigu burura bizkaiera: *amuna* (amona), *baltz* (beltz), *barri*, *ibai*, *ira* (iratze, garo), *unsausti* (intxausti), *uri* (hiri) etabar.

Errioxak, horrela, nagusiki mendebaldeko hiztegia erakusten du. Erdialdeko hitzen adibideak ere badauzka: *aurre*, *arte*, *be* (behe), *elorri*, *goi*, *urruti*. Eta ekialdeko batzuk: *beiti*, *ene* (nire), *guti* (gutxi).

Tarteka arkaismoren bat edo beste ere agertu da: *iputza* (gipuzkoarra) *giputza*-rekin txandaka, *anderkina* (andereñoa) etabar.

Bildu ahal izan dugun materialari begira, hitz hasieran *j* edo *x* daukaten bi hitz soilik agertu zaizkigu: *jator* eta *xar* (xahar). Eta hasieran *y* daukan hitz bat ere ez dugu aurkitu.

A eta *e* bokal protetikoei dagokienez, bi adibide *e*-dun azaldu zaizkigu: *erreka*, eta *errot*, «erreka ate» eta «errotalde» toponimoetan gorderik eta, gaztelaniaren eraginez, «reca ate» eta «rotalde» formetan jasorik.

Zenbaitetan ikusi ahal izan dugunez, artikulua bere aurreko bokalaren palatalizazioa eragiten du: *bide* > *bidia*, *luze* > *luzea* & *luzia*, *arrote* > *arlotia*...

Errioxako toponimian *o* > *u* bilakaeraren adibide bat ikus daiteke: *gorosti* > *gurusti*. Burgosen *u* > *o* bilakaera ikus daiteke «gurutze» hitzean: *kurutze* > *korotze* edo *kurtze* > *krotze*. Errioxan, aldiz, *korotze* & *krotze* baizik ez dira azaldu.

Leku genitiboaren (edo *nongo* kasuaren) adibide batzuk ere ikus daitezke. Zenbaitetan *-ko* atzizkia *-koa* mantentzen da artikuluaekin nahiz deklinatzean, eta beste zebaitetan *-kua* bihurtzen da: *behere* + *go* + *a* > *beheregua* (beherekoa).

Hatxe hasperenduak ere izan ziren Errioxan, idatzirik dauzkagun leku izenetan zenbait aldiz jaso baita soinu hori *h* letra idatziz. Hiztegian zehar, hainbat adibide ikusiko dugu han-hemenka: *harana*, esaterako. Hala ere, joera nagusia hatxerik gabe idaztea zen.

Toponimian eta hondarreko euskararen oso zaila da aditzik aurkitzea, baina bat edo beste ager daiteke. Gure iturrietan mendebaldekotzat jo daitekeen *nastatu* (nahasi) agertu da; ekialdean *nasi* eta *nastekatu*, biak erabiltzen dira.

Aditz laguntzaileari dagokionez, ordea, *dugu* adizkia ageri da daukagun lekukotasun bakarrean, gaur egun Iparraldeko eta Nafarroako euskalki gehienetan erabiltzen dena, eta

euskara batuak egoki bereganatu zuena.

Aipagarria da *aita* hitzaren *atto* aldaera, Errioxan dokumentaturik dagoena.

Gaur egun “aski modernoak” iruditzen zaizkigun Erdi Aroko bi pertsona izen agertu dira: *Txomin* eta *Txetxu* (Joxetxo). Eta *Mari* jainkosa izan litekeena ere dokumentaturik dago.

Errioxako beste gauza aipagarri bat, Burgosen ikusi ez duguna, ‘atze’ eta ‘aurre’ hitzen ingurukoa da. Izan ere *atze* ez da agertu —Burgosen bai—, baina *gibel* daukagu. Bestetik, *aurre* eta *antzin* dokumentaturik dauzkagu, nahiz eta bigarrena zalantzazkoa den.

4. Hiztegia egiteko erabakiak. Grafia eguneratua

Errioxako gaztelanian gordetako euskal hitzak eta erdal grafiaz idatzitako toponimoak hiztegi honetara ekartzeko, haien grafia eguneratu behar izan dugu eta, horretarako, honela jokatu dugu: c (a, o, u) > k, c (e, i) > z, qu > k, ch > tx, gu (e, i) > g (e, i), g (e, i) > j (e, i), mb > nb eta mp > np.

4. 1. Parentesien erabilera

Bilduma honetako gainerako hiztegietan bezala, bitariko parentesiak erabili dira hemen: () eta []. Ohiko parentesien artean ematen dena — () artean, alegia— ondoko hauxe da. Hitz bakoitzaren iturriak: (2, 4, 5, 8). Hitzak zein gaitakoak diren: (*anat.*), (*nek.*). Eta euskalkiko hitz bakoitzari euskara batuan emandako ordainean ongi datozkeen argibideak: **abar** (3, 4, 6) : abar (adartxo). Sarreretan, hitza osatu beharra izan denean: *kaputz(ete)* murgilaldi, *nasta(tu)* nahasi.

Adibideetan *claudator* delako parentesia ageri denean — [], alegia—, testuetako zerbait ukitu edo ustez zuzendu egin dugula esan nahi du: [*ar*]ro *zabala*, *bagandiko* iturri[*a*], etabar.

4. 2. Hiztegi honen erabilera

Erabilera errazeko hiztegia da hau. Bi kontsulta modu ditu:

1) Lehenengo aldeko hitzak edo sarrerak Errioxako euskaraz daude, beren ordaina euskara batuan dutela. Lortu edo aurkitu direnean, adibideak jarri zaizkie hitzei.

2) Zerbait Errioxako euskaraz nola esaten den jakiteko, berriz, hiztegiaren bigarren zatira joko dugu, hor euskara batuaren bidez kontsulta baitaiteke. Zati horretan hitza eta euskalkiko haren ordaina besterik ez dugu aurkituko, gaia (*anat.*, *nek.*, *zoo.*) ondoan ageri dela, jarrita dagoenean. Informazio osatuena eskuratu ahal izateko, komenigarria da kontsulta beti lehen aldean bukatzea, hitzen adibideak lehen zatian ageri direlako.

Bestalde, hiztegiko oharretan (OH.), adibidez, «Ikus Aznar 111» irakurtzen badugu, horrek esan nahi du 5. puntuko bibliografiako Aznarren idazlanaren orrialde horretan informazio gehiago aurkituko dugula kontsultagai dugun sarreraz.

5. Hiztegiaren iturrien bibliografia

Jarraian, hiztegia egiteko erabili diren testuen berri emango dugu. Ikus daitekeen bezala, bost dira. Denera 432 hitz edo sarrera bideratu dizkigute iturriok.

1) J. Bautista MERINO URRUTIA

— 1931, *El vascuence en el valle de Ojcastro (Rioja Alta)*, Sociedad Geográfica Nacional, Madril.

— 1932, *Más sobre el vascuence en el valle de Ojacastrro (Rioja Alta)*, Sociedad Geográfica Nacional, Madrid.

— 1962, *El vascuence en la Rioja y Burgos*, Monografías vascongadas, Donostia.

Iturri honek 163 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 28 berak bakarrik dakartza.

2) Eduardo AZNAR MARTINEZ

— 2017, *Tierras, gente y voces. El legado del euskera riojano*, Pamiela, Iruñea.

Iturri honek 376 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 195 berak bakarrik dakartza.

3) José María SANSEBASTIAN (LATXAGA)

— 1974, *Errioxa'ko San Millan euskal iturri*, Edili, Donostia.

Iturri honek 21 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 9 berak bakarrik dakartza.

4) Jorge MATEY VALDERRAMA

— 2016, *Planos de toponimia actual e histórica y nomenclátor del Alto Oja (La Rioja). Ezcaray, Ojacastrro, Valgañón, Zorraquín*, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño.

Iturri honek 81 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 10 berak bakarrik dakartza.

5) José María PASTOR BLANCO

— 1997, *El léxico pastoril en la comunidad de Valles del Alto Najerilla*, Errioxako Unibertsitatea, Logroño.

— 2011, *El castellano hablado en La Rioja*, Ediciones Emilianenses, Logroño

Iturri honek 144 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 91 berak bakarrik dakartza.

6. *Toponimia, arlo irristakorra*

Bosgarren puntuan argi ikusten denez, Errioxako hiztegia toponimian oinarritua da, oso neurri handian. Nafarroa Garaiko hiztegiak egin ditugunean ere adierazi izan dugu toponimia ez dela, beharbada, iturririk egokiena hiztegi gintzarako, zalantzazko leku izenak ez direlako gutxi izaten; haietako asko esanahi ilunekoak izaten dira, ulergaitzak. Arlo horretan lanean dabilzan egileen artean, gainera, kontraesanak ikusi ditugu zenbaitetan.

Toponimia gabe, ordea, hiztegi hau egiterik ez zen izango, Errioxako euskararen hitz jario handiena iturri horretatik dator eta. Interpretazio zailekoak iruditu zaizkigun leku izenak EZ ditugu erabili, eta gardenak iruditu zaizkigunei utzi diegu lekua, adituek —edo adituren batek— esanahia argitu dietenekin batera. Beharrezko iritzi diogunean, informazio gehiago nahi duen irakurlea egileen jatorrizko lanetara bidali dugu, OH. (oharra) laburduraren bidez.

Bestetik, toponimian jasotako *ago*, *bizkar*, *bular*, *gibel*, *sabel* eta antzeko hitzak, toponimian berez ezaugarri geografikoei loturik daudenak, jatorriz anatomiarri zegozkiola iritzi diogu. Horregatik, hitz multzo hori *geografia* gaiaz markatzeaz gain, *anatomia* gaiaz ere markatu dugu. Eta toponimian «txikia» esan nahi duen *guti* hitzari, «gutxi» hitzaren parekidetasuna ere eman diogu.

Jakitun gara toponimiaren arloan gu ere irristatu egingo ginela. Barka bitza irakurleak gure akatsak. Hau, ordea, ez da toponimia argitzeko idazlana, toponimian aurkitu diren hitzak

irakurlearen eskuetan jartzeko hiztegia baizik.

Irakurleak hiztegi honetako hitz bat toponimiatik hartuta dagoen ala ez jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

7. Diakronia gure hiztegian

Bestetik, gogoan izan behar da duela ehunka urte desagertatuko hizkuntza baten edo hizkuntza aldaera baten lekukotasunak ez direla beti garai berekoak izaten, baizik eta mende desberdinetan jasota geratu diren hitzak edo esaldiak izan ohi direla.

Horrela, Zaraitzuko euskararen hiztegia, adibidez, gorde diren XIX. eta XX. mendeetako testu idatzirik gabe eta XX. eta XXI. mendeetako azken hiztunen ekarpena gabe egin balitz, hiztegi horren itxura orain duenaren oso desberdina izango zen, iturri nagusia mende horien aurreko toponimia izango zelako, hau da, euskalki horretan ia sinkoparik ez zegoen garaikoa (Zaraitzueraren ezaugarriak nabarmenetako bat sinkopak dira).

Zuhurtziak diosku ez dugula pentsatu behar Errioxako euskara galdu ez balitz, hiztegi honetan ageri dena bezalakoxea izango zenik. Ziur aski, Zaraitzun bezala, XV. mendeko Errioxako euskara, eta XXI. mendekoa aski desberdinak izango ziren.

Aldiz, lasai baieztatu daitezke hiztegi honetan dauden Errioxako euskararen lekukotasunak garai jakinetako argazki zaharrak direla, zuri-beltzezko argazki hautsezatuak. Baina hango argazkiak.

Irakurleak iturri bakoitza zein garaitakoa den jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

8. Esker onez

Errioxako hiztegia nire anaia Jesusmari Arana Luzuriagaren laguntzarekin argitaratu da. Anes Arruti lan informatikoan jardun da berriz ere laguntzaile. Koldo Colomo adiskideak prestutasun handiz bilatu eta bideratu ditu lanerako behar izan ditugun materialak.

Esker mila guztiei, zintzoki.

Aitor Arana
Azpeitian, 2020ko udaberrian

Ikurrak eta laburdurak

| | |
|-----|---|
| () | 1. Sarreretan, hitza osatzeko erabili da. 2. Itzulpenetan, gehigarriak eta argibideak. |
| [] | Adibideetan, zuzendu edo osatu nahian erantsi dena. |
| (?) | Ziurtasunik gabekoa. |
| {Z} | Zalantzazkoa. |
| ; | Hitz batek ondokoarekiko antz handia duenean, baina ez esanahi berbera. |
| : | Adibide amaiera eta batuaz emandako ordainaren hasiera. |
| / | Adibide hasiera. |
| > | 1. Adibidea jarraian dator. 2. Hitz bat aurrekoaren eratorria da. |
| = | Baliokideak dira, esanahi bera dute. |

| | |
|-------|-----------------------|
| adj. | Adjektiboa |
| adb. | Adberbioa |
| adib. | Adibidea |
| alb. | Albaitaritza |
| anat. | Anatomia |
| astr. | Astronomia |
| bot. | Botanika |
| ekon. | Ekonomia |
| erai. | Eraikuntza, eraikinak |
| erl. | Erljioa |
| geog. | Geografia |
| gram. | Gramatika |
| haur. | Haur-hizkera |
| heg. | Hegaztiak |
| hist. | Historia |
| hizk. | Hizkuntzalaritza |
| its. | Itsas kontuak |
| jos. | Jostailuak |
| kim. | Kimika |
| kir. | Kirola |
| lag. | Lagunartekoa |
| med. | Medikuntza |
| met. | Meteorologia |
| meta. | Metalak |
| mil. | Milizia |
| min. | Mineralogia |
| mit. | Mitologia |
| mus. | Musika |

| | |
|------|--------------|
| nek. | Nekazaritza |
| OH. | Oharra. |
| oih. | Oihalgintza |
| psk. | Psikologia |
| suk. | Sukaldaritza |
| tek. | Teknika |
| zoo. | Zoologia |
| zuz. | Zuzenbidea |